

hau sinestezina da!

Kaixo, ni Niky Smith naiz:

New Yorken bizi den hamahiru urteko neskaxa kaskagorri bat.

Orain dela pare bat urte gutxi gorabehera hamaika urte nituenean, oraindik sinesten ez dudan kontakizun harrigarri bat gertatu zitzaidan eta entzuteko gogo handia edukiko duzuenek kontatu egingo dizuet. Baina itxaron pixka bat, zeren lehenengo nire familia aurkeztuko dizuet.

Nire etxean bost pertsona txakur bat eta bi hamster bizi gara. Nire ahizpa, anaia, ama, aita, txakurra, hamsterrak eta ni alegia.

Ni nire familiarekin batera “Manhattan” auzoko txalet handi batean bizi naiz.

Nire ahizpa txikiak Mary Kate izena du eta lau urte ditu.”Txinatarra” da, hau da, nire gurasoek jaioberria zenean adoptatu zutena. Oso xalatu da eta oso berritsua gainera. Baina egun guztia panpinekin jolasten ibiltzen da eta egunero panpina berri bat erosi nahi du. Bere ametsa, modelo izatea da.

Nire anaiak John izena du eta hemezortzi urte ditu jadanik. Ilhoria da, begi urdinak ditu, eta oso altua da. Momentu hauetan ez dago New Yorken, Gipuzkoan dago Donostiako unibertsitate batean. Donostian, alokatutako etxe batean bizi da eta hemendik gutxira etorriko da.

Amak Kate izena du eta hogeita hemezortzi urte ditu. Kaskagorria eta pekaduna da eta New Yorkeko Klinika nagusian egiten du lan, erizaina da. Libre duenean bere lagunekin tea hartzea eta hizketan egotea gustatzen zaio.

Tom izena du nire aitak eta nire anaia bezala ilhoria da. Tea asko atsegin du eta ahal duenean arrantza egitera joaten da. Nire aita haginlaria da eta egun osoa lanean ematen du. Ahaztu egin zait esatea, nire aitak berrogei urte dauzka.

Beno, iritsi da ni neu aurkezteko garaia. Ni nire amaren berdina naiz. Kaskagorria, pekaduna eta begi urdinekoa. Nire ametsetako bat beisbol jokalaria izatea da. Lehen esan dizuedan bezala hamahiru urte ditut. Ikastolan beisbolera jolasten naizenez mutila ematen dudala esaten didate.

Ahaztu egin zait, nire txakurra Odi izena duen Cooker marroi bat da eta nire hamsterrak Popi eta Papi izena duten bi hamster marroi – zuri.

Beno, gehiago enroilatu gabe!

Historia astera doa!!!!

Orain dela bi urte gutxi gorabehera, hamaika urte nituenean, udaberriko egun eguzkitsu bateko arratsaldean, musika klasearen ondoren, txirrina jotzean, izugarri gustatu zitzaidan zerbait gertatu zen. Gelatik ateratzerakoan New Yorkek desberdina ematen zuen. Kaleak, plazak, jolastokiak, ikastola... paperez josiak zeuden. Hainbeste paper zuri zeudenez munduak ipar poloa zirudien. Nire ama han zegoen autoarekin haserretuta niri itxaroten eta ni berriz han lasai – lasai nengoen. Eskutik heldu eta arrastaka eraman ninduen autoraino.

Autoaren barruan etxerako bidean paisaia zuria ikusten jardun nuen ailegatu nintzen arte.

Zer zen hura? galdetzen nion neure buruari behin eta berriro.

Ettxera sartu baino lehen konturatu nintzen etxeko atarian ere paper horietako bat zegoela. Kuriositate handia nuenez papera hartu eta korrika etxera sartu nintzen. Sartu bezain pronto irakurtzen hasi nintzen eta portadan onena zela esaten zuen “Fashion Girl” izeneko “Barbie” horietako bat azaltzen zen. Nik ez nuen ezertxo ere ulertu baina nire ahizpa panpinen gauzetan oso – oso iaioa denez berari galdetu nion zer zen hura.

Berak esan zidanez New Yorken atera zuten “Barbie” horietako bat zen. “Fashion girl” zuen izena eta honelakoxea zen: Espagetia bezain argala, ile beltzekoa, beltzarana, begi urdinak, altua eta oso moderna zihoan jantzita. Garestia zen, 60 euro balio zituen baina inori ez zitzaiola inporta nabaritzen zen, hiriko jostailu denda guztietan jende guztia panpina hori erosten zegoenez orratz bat ere sartzen ez zelako.

Boom (arrakasta) handia zutela konturatu nintzen. Telebista jarri eta kanal guztietan agertzen ziren panpinak, egunkarian, irratian... eta gauza ber – bera. Gainera telebistako iragarki guztiak panpina horrenak ziren. Ni asko poztu nintzen nire hirian panpina bat atera zutelako zeren gezurra eman arren niri panpinak asko ez, pilo bat gustatzen zitzaizkidan. Ikastolan nengoenean egun guztia fubolean edo beisbolean jokatzeko aritzen nintzen. Arratsaldeetan ere beisbol entrenamenduak nituen. Baina etxean nengoenean panpinekin ibiltzea atsegin nuen.

Nire ahizpa eta ni, panpina harekin txoratuta geunden.

Gauean afaltzeko garaian gurasoei “fashion girl” panpina nahi genuela esan genien baina beraiek beti bezala ezetz esan zuten eta gainera oso garestia zela ere aipatzen zuten askotan. Nire diruarekin erostea pentsatu nuen baina... hogeituro falta zitzaizkidan hirurogeituro edukitzeko eta diru hura lortzeko ideia bat bururatu zitzaidan. Nire wolman zaharra salduko nuen.

Baina nori saldu ordea?

Pixka bat pentsatzen egon ondoren, wolmanak saltzen dituzten denda batera eramatea bururatu zitzaidan eta hamar euro besterik ez zizkidaten eman berarengatik. Orduan aste batzuetan paga gastatu gabe jardun behar izan nuen. Alegia gozokiak jan gabe.

Orain bai!! Esan nuen. Hirurogeituro ditut !!

Korrika batean aitarengana joan nintzen eta berak ea diru hori nondik atera nuen galdetu zidanean wolman zaharra saldu nuela esan nion. Askokostatu zitzaion baina, hurrengo egunean gure auzoko jostailu dendara joango ginela agindu zidan aitak.

Panpina berria erosi behar nuenez nire ahizpari eman nizkion nituen panpina guztiak. Beltzaranak, zuriak, pixa egiten zutenak, negar egiten zutenak... Baina hala ere bera ez zegoen konforme, nik bezala, “Fashion girl” panpina nahi zuen.

Hurrengo egunean ikastolatik atera nintzenean, beisbol entrenamendua utzita ahal nuen azkarren abiatu nintzen etxera, gepardo baten antzera. Han nire aitari lanetik noiz etortzen zen itxaroten egon ondoren, etorri zenean, etxera sartzeko astirik eman gabe, eskutik heldu eta kanpora eraman nuen.

Dendara sartu ginenean korrika batean “Fashion girl” panpinen atalera joan nintzen eta panpina bakarra geratzen zenez neskatala batekin haserretu ondoren panpina lortu nuen. Ordaintzeko lekuan nire diru zorroa atera eta ordaindu egin nion pena handiarekin, aurreztuta nuen diru guztia zelako.

Azkenean! esan nuen. Nire ametseko panpina dut.

Etxera ailegatu ginenean panpinari begirada bat eman nion eta paperean jartzen zuen berdin – berdina zela konturatu nintzen.

Nire ahizpa txikiak panpina berria erosi nuela konturatzean eskutik kendu eta bere gelara alde egin zuen. Hor hasi zen guztia. Nire ahizpa eta ni borrokan hasi eta “fashion girl” panpina lurrera erori zen.

Panpinaren atzealdean arroparekin tapatuta bi botoi zeuden eta bietako batean ez ukitzeko jartzen zuen baina lurrera erori zenean botoia zapaldu egin zen eta momentuan argi urdin bat atera zen. Ni, ametsetan nengoela uste nuen baina begiak igurtzi ondoren konturatu nintzen benetakoa zela. Aurrean ikusten ari nintzena sinetsi ezinik nengoen, panpina desagertu eta argi urdinetik neska beltzaran bat agertu zen. Berehala konturatu nintzen agertu zen neska hura “fashion girl” panpinaren berdina zela eta agertu bezain pronto hitz egiten hasi nintzen:

- Nor zara zu? - galdetu nion.
- Ez al duzu ikusten? – ni fashion girl naiz esan zidan, ingelesez noski.
- Zorabiatuta: Zer egiten duzu hemen, panpina bat besterik ez zara eta? - galdetu nion.
- Jostailu dendan geratzen zen panpina bakarra, panpina originala zen eta horregatik botoi hura ukitu ezkerro benetako neska agertzen zen. Alegia, ni.

Faborez eta mesedez nire etxean lo egiten geratzeko eskatu nion eta hamahiru aldiz ezetz esan ondoren baietz esan zidan, baina lehenengo nire amaren baimena behar nuen.

Iuju! Iuju! esan nuen ozenki, eta hain ozenki ere, korrika batean Mary Kate, ama eta aita etorri ziren. Dena kontatu ondoren sinistu ezinik etxean lo egiten gera zitekeela esan zuten.

Beste aldera begiratu nuenean han zegoen nire ahizpa lagunentzako berrehun autografo eskatzen, muxuak ematen eta aldi berean iletik tiraka benetakoa zen ala ez konprobatzeko.

Gertatu zen gauza hura sinistu ezinik geunden denak

Nire gelan bi ohe zeudenez nire gelan egingo zuen lo. Segituan bihotz oneko neska zela konturatu nintzen. Gelan geundela bere bizitza kontatzea erabaki zuen. Entzun ezazue! Zer esan zidan: Nire bizilekua auzo honetako jostailu dendan dago. Ni bakarrik nengoen etxe eta dirurik gabe eta lanpostu bila nengoela auzo honetako jostailu dendako zuzendariak lan egiten utzi zidan. Zuzendari hura bihotz onekoa iruditu zitzaidan zeren lanpostuaz gain lo egiteko logela bat utzi zidan ezer ordaindu gabe. Oso pozik jarri nintzen, lanpostu hartan oso ondo ordainduko zidaten, gustatu egiten zitzaidan eta gainera lo egiteko lekua neukan.

Ez nuen hainbeste poztu behar zeren lehenengo gauean lo egiten nengoela zuzendaria bere giltzekin logelara sartu eta ni esnatu gabe bere botereekin panpina bihurtu ninduen.

- Eta hori nola? Sorgina al zen ? - galdetu nion.
- Bai! eta oso ona gainera erantzun zidan eta hitz egiten jarraitu zuen.

Goiz hartan esnatutakoan panpinen atalean aurkitzen nintzen. Ondoan ni bezalako ehun mila panpina zeuden eta kaxetan "Fashion girl" jartzen zuen letra larrian, baina konturatu nintzen horiek ez zutela ez hitz egiten ezta lo egiten ere, beraz panpina horiek ez ziren ni bezalakoak.

Ondoko panpina ilehori original bat nirekin hizketan hasi zen eta berak guzti – guztia kontatu zidan: Berak esan zidanez urtero panpina berria ateratzen zuten zuten neska berri bati lana eman eta logela uzten zion, orduan gauean logelara bere giltzekin sartu eta bere sorgin botereekin panpina bihurtzen omen zuen. Orduan berari imitatuta ehun mila panpina egiten zituen. Horregatik panpina original guztiak leku berean jartzen zituen. Gu salbatzeko zer egin behar zuten ere esan zidan, gure atzealdean ez ukitzeko jartzen zuten botoi batzuk ukitu eta lehen ginen bezala azaltzen ginen. Gainera, zuzendariak nahi zuena egunkarian, irratan, eta telebistan ateratzen eta bere sistema berria erakutsiz dirua ateratzea zen.

Hitz egiten bukatu zuenean han etorri ziren denak panpinak erostera eta zuk, Niky erosi egin ninduzun. Han bukatu zen etxe honetara etorri baino lehen jostailu dendan izan nituen abenturak.

Bere bizitza kontatzen bukatu zuenean afaltzera joan ginen.

Kaixo, Niky naiz eta hitz egiten jarraituko dut.

Beste egunetan oso ondo moldatu nintzen "Fashion girl"ekin. Nire beisbol partidak ikustera joaten zen, jolastu egiten genuen eta bere izenez deitzen genion: Catia

Ikastolara ere etorri zen behin eta izugarritzko arrakasta eduki nuen.

Egun batean ikastolatik bueltatutakoan Catia ez zegoela etxean konturatu nintzen eta hasieran itxaroten egon nintzen baina ez zetozeela ikustean oso triste jarri nintzen eta oso triste egon nintzen egun osoa. Gauean afaltzen geundela Catia azaldu egin zen eta pozaren – pozez saltoka hasi nintzen.

Badakizue zertara joan zen etxetik? Ba jostailu dendara itzuli zen eta beste panpina original guztiei ez ukitzeko jartzen zuen botoian jo eta salbatu egin zituen. Ondoren neska guztiak batera poliziari deitu eta kartzelara eraman zuten zuzendaria. Kartzelara eraman ondoren jostailu dendara itzuli eta maleta prestatu zuen gure etxera etortzeko.

Oso, oso ausarta zara! esan genion denek batera eta gurekin geratu zen afaltzen.

Maletak desegin ondoren gurekin bizitzen geratuko zela esan zigun eta oso pozik jarri ginen bere erabakiagatik.

IPUINAREN AMAIERA

Zer, gustatu zaizue historia? Oso polita da ezta?

Oso pozik nago Catia eta nire anaia ezkongaiak direlako eta gainera bientzako etxe bat erosi dute. Orain dela bi urte ezagutu zuten elkar eta unibertsitatetik etortzen den bitartean bakarrik ez egoteko gure etxean egongo da. Hemendik urte batzuetara ezkondu egingo dira.

Ahaztu egin zait esatea: Nik eta nire familiak ingelesez hitz egiten dugu euskara ez dakigulako eta nik gertakizun hau ingelesez idatzi dut baina nire anaiak euskara dakienez euskarara pasa dit.

Agur bero bat denen partez eta batez ere Odiren partetik!!!!